



Nerabeek enbarazu egiten digutela dirudi eta horrek gatazka sortzen du”

Noiz eta zergatik parte hartzen dute nerabeek? Galdera hori dute abiapuntu Oinherrik antolaturiko jardunaldiek. Bai nerabeen beharrak bai euren aisialdia bazterrean utzi dituzte pandemiaren kudeatzaileek eta arrisku faktoretzat aurkeztu dizkigute etengabe; enpatia faltak eta nerabezaroaren ikuspegi tradizionalak ez dute asko lagundu. Garbi mintzatu zaigu jardunaldietan arituko den Leire San Vicente: elkar aitortu, entzun eta benetan parte hartzeko espazioak behar ditugu.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Helduok bezalaxe sufritu, haserretu eta tristatu dira nerabeak pandemia garaian, norberaren motxilaren eta egoera gestionatzeko baliabideen arabera gehiago-gutxiago. “Batzuk, ordea, lasai eta eroso ikusi ditugu, etxean gotortuta gustura, eta paradoxikoa dirudien arren, nolabait bada kezkatzekoa, etxe-ko babesean goxo izan diren nerabe horietako askok kalea eremu eraso-kortzat dutelako eta orain berriz ere inguru erasokor horretara itzuli behar dutela sentitzen dutelako”. Gazte asko, ordea, neurri murriztaileen malgutzarekin gogotsu daude, euren adinean hain inportantea den esperimentazioari eta txoko, jende eta harreman berrien bideari heltzeko irrikaz. Hala kontatu digu Leire San Vicentek. Txatxilipurdi aisialdi elkarteko kidea da bera, eta Oinherri herri hezitzaileen sa-



Gaitzaren transmisio talde nagusi moduan agertzeaz gain, kriminalizatu egin ditugu. Pandemiaren aurretik nerabezaroa tratatzeko izan ditugun gabezia guztiek aurpegian egin digute eztanda”

reak urriaren 16an Aiaraldeako Ekin-tzen Faktorian antolatu dituen jardunaldietan arituko da. Egitarau oparoa prest dute larunbaterako.

San Vicentek argi du: nerabeak ahaztuak eta baztertuak izan dira pandemian, ez zaie galdetu eta ez zaie entzun, eta aisialdiari ez zaio batere inportantziarik eman, “baina aisialdiak funtzio oso garrantzitsua betetzen du gizartean, aisialdian gara aske, gure benetako beharrekin egiten dugu bat eta guk erabakitzen dugu zerk egiten digun ondo, zerk laguntzen digun gozatzen eta hazten. Esparru bakarrenetarikoa da gure barruarekin konektatu dezakeguna ditugun betebeharretatik harago; norekin zer partekatu eta zer eraiki aisialdian gauzatzen dugu bereziki”. Bada, hori guztia moztu egin da, deuseztatu, eta presiopean dagoen lapiko bihurtu gaitu, baina helduok aukera eta

baliabide gehiago izan ditugu arnasaldiak bilatzeko, nerabeek askoz zailago izan dutela dio San Vicentek, eta gainera arrisku faktore bezala aurkeztu ditugula: “Gaitzaren transmisio talde nagusi moduan agertzeaz gain, kriminalizatu egin ditugu, hainbat jokabide orokortuz eta gazte guztiak arduragabe eta berekoitzat joaz. Pandemiaren aurretik nerabezaroa tratatzeko izan ditugun gabezia guztiek aurpegian egin digute eztanda”.

Nerabeek, “gustatu ala ez”, guk geuk bezala bideak aurkituko dituzte bizitzan inportanteak diren bizipenak eta harremanak garatzeko; “bere betebeharra da eta egingo du”. Berandu baino lehen, elkar entzuteko espazioak sortu behar direla azaldu digu San Vicentek, zer moduz dauden eta zein behar dituzten galdetzeko, elkar zaintzeko, babestuta sentitzeko. “Guk momentu askotan kontrakoa egin dugu. Nerabeek enbarazu egiten digutela dirudi eta horrek gatazka sortzen du”.

EZ HAUR, EZ HELDU

Heldu guztiok izan gara nerabe. Zerga-

tik halako konfrontazioa, gazteen halako kriminalizazioa? Bi gako eman dizkigu Txatxilipurdiko kideak. Batetik, nerabezaroaz dugun ikuspegi tradizionala, oraindik ere gurean errotua. Sarri, trantsizio fasetzat hartzen da sasoi hori, nerabeak haur handiak edo formatzen ari diren helduak bailiran, eta heldutasun sozialik gabeak hautemanda inplizituki gizarteko subjektu izatea ukatzen zaiela dio San Vicentek. Trantsizioaz ez, transmisioaz hitz egiten du berak: “Jendarteak gazteari praktika, sinesmen eta balio sistema bat transmititzen dion unea da nerabezaroa, eta aldi berean, gazteak praktika, sinesmen eta balio horiek baztertzen edo onartzen dituen unea; independentzia eta autonomia bereganatzen hasten den unea”. Bizitzarako prestakuntza aroa baino gehiago, etapa propioa da nerabezaroa.

Maiz ez ditugula ulertzen eta horregatik enpatizatzea kostatzen zai-gula ere badio gure solaskideak. Aurreko belaunaldion nerabezaroa eta gaur egungoa parekoa izan baitaiteke muinean, baina atrezzoza asko aldatu

“

Aisialdian gara aske, gure benetako beharrekin egiten dugu bat eta guk erabakitzen dugu zerk egiten digun ondo, zerk laguntzen digun hazten. Hori guztia moztu egin da, deuseztatu, eta presiopean dagoen lapiko bihurtu gaitu”



Leire San Vicente, nerabez inguratuta.

da, testuingurua –eta etorkizunerako begirada– ezberdina da oso; egiteko moduak, harremantzekoak, komunikatzekoak, lagunarteak, kodeak... oso bestelakoak direla gogoratu du San Vicentek.

ARRANTZALE ARRANTZATUA

Eta nerabeengana hurbiltzen saiatzen garenean, sarri harri berarekin egiten dugu estropezu: haientzat, baina haiek kontuan hartu gabe. Arrantzalearen jardunarekin konparatu du solaskideak: izan gaitezke amua jarri eta kanabera botatzen duen arrantzalea, arrainak erakarri nahian; izan gaitezke arrantzatu nahi dugun hori ulertzen saiatzen den arrantzalea, amua noiz, non eta nola bota jakiteko; edo izan gaitezke arrainak erakarri baino, haiek aske, goxo eta bizirik ikusi nahi dituen arrantzalea, haiekin batera igeri egingo duena: “Azken eredu hau politagoa eta eraikitzaileagoa da, arrasto handiagoa uzten du norberarengan eta kolektiboarengan, baina dedikazio, konpromiso eta mimo handia eskatzen du”. Zentroan ez dago arrantzalea, arrainak baizik; zentroan ez dago begiralea, nerabeak baizik, eta begiraleak baliabideak eskainiko dizkie, gizartearen parte izateko eta sentitzeko. “Batzuetan zerbait ukigarria sortuko dugu, zerbitzu bat, jaialdi bat... eta beste batzuetan ez, baina ikusten dena bezain garrantzitsua da ikusten ez dena”. Eta ñabardura inportantea egin digu: ospatu eraikitakoa, dena delakoa ere, ospatu elkarrekin!

NOIZ ETA ZERGATIK HARTZEN DUTE PARTE NERABEEK?

Galdera zehatza dute jardunaldiek, eta horixe bera egin diogu guk Txatxilipurdiko kideari. “Nerabeak ez daude oso



urruti helduon errealitatetik. Galdezten badiogu gure buruari ea noiz hartzen dugun parte zerbaitetan, erantzun asko jasoko ditugu”. Noiz parte hartu? Bada, hasteko, parte hartzeko aukera daukazunean, “hau da, ahal izan behar da”, eta horretarako espazioak, parte-hartzaileen beharrak, baldintzak... zaindu behar dira. Epaiketarik gabeko espazio seguruak izateak ere laguntzen du, jakina. Zergatik parte hartu? Bada, horretarako “nahi izan behar du nerabeak”, gaiak zuzenean eragiten diolako, ekarpena egiten diolako, motibagarri ikusten duelako...

Hirugarren puntu bat ere nabarmendu du Leire San Vicentek: parte hartzen jakin egin behar da. “Inoiz logika parte-hartzaileetan aritu ez denarentzat arrotza izan liteke adibidez metodologia parte-hartzaile zehatz batzuetan barneratzea. Parte hartzen parte hartuz trebatzen eta ahalduntzen

“

Izan gaitezke arrainak erakarri baino, haiek aske, goxo eta bizirik ikusi nahi dituen arrantzalea, haiekin batera igeri egingo duena. Azken eredu hau politagoa eta eraikitzaileagoa da”

gara”, eta ildo horretako esperientzia aberasgarriak ez dira gutxi. Oinherrik antolatutako jardunaldietan ere halako hainbat ezagutu ahalko ditu gerturatzten denak. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Sentitu udazkena

Kanpoaldeko espazio kuttunenez gotzatzeko garaiz zaude oraindik.

Zatoz!

Online denda ➔

